

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Nafarroako ijitoen komunitateari harrera egin dio

7.500 pertsonaz osatutako kolektibo hau apiril honetan zenbait ekitaldi eta ospakizun burutzen ari da

Miércoles, 25 de abril de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Nafarroako ijitoen komunitateari harrera ofiziala egin dio. Ekitaldia ijitoen kulturaren hilabete'-aren ospakizunen barnean sartzen da, apirilean ospatzen baitira Herri Ijitoen Nazioarteko Eguna (hilak 8) eta Nafarroako Ijitoen Komunitatearen Eguna (hilak 27). Gainera, apirilaren 14an 'Sabicas' maisuaren heriotza ospatu zen, hura jaio zela ehun urte betetzen direla eta.



Barcina Lehendakaria eta beste agintari batzuk, ijitoen komunitateko ordezkariekin.

Nafarroako ijito-erakundeetako hogei bat ordezkari (La Majarí, La Romaní, San Fermín de los Gitanos, Secretariado Gitano Fundazioa eta Gaz Kalo Federazioa) izan dira Nafarroako Jauregiaren Tronu Aretoan, eta guztien ordezkari María Ángeles Jiménez Grávalos-ek hitz egin du.

Bere agerraldian, Barcina Lehendakariak Hezkuntzak gizarteratze-prozesuan duen funtzioa azpimarratu du, eta ondorengoa adierazi du: "Adin goiztiarretan ikasleen matrikulazioa igotzea lortzen badugu, nahitaezkoen ondorengo ikasketetarako sarbidea eta agertzea nahiz ikasketetako emaitzen hobekuntza eskola-bizitza guztian zehar, lortuko dugu horrek modu oso adierazgarrian bizitzaren beste gai funtsezko batzuetan eragin dezan, etxebizitzan, osasunean edo enpleguan, esaterako". Halaber, aukera baliatu du José M^a Berrio patriarkari bere dolumina transmititzeko semearen heriotza dela eta.

M^a Angeles Jiménez-ek, berriz, nabarmendu du "gaur egun garai zailak bizi ditugula, gizarte-bazterketako txirotasun-adierazleak gora egin dute era kezagarrian, eta ijitoen komunitatean 14gatik biderkatzen da bazterketa-prozesuengatik kaltetuta ateratzeko aukerak".

[Nafarroako ijitoei Arreta Emateko I. Plan Integrala 2011-2014](#)ko jarraipen-batzordea osatzen duten Nafarroako Gobernuko departamentuetako zenbait kide ere izan dira. Plan horretan Foru Komunitateko ijitoekin dauden esku-hartzeen jarraibideak ezartzen dira, eta populazio horren egoerari buruzko diagnostiko bat ere barnean hartzen du.

7.000 eta 8.000 pertsona artean

Foru Komunitateko ijitoen populazioa 7.000-8.000 pertsona artean dagoela kalkulatu da, egindako azken azterketen arabera.

Aurretiazko azterketa sozio-demografikoen arabera, populazio horrek jaiotza- eta heriotza-tasa handiak dituztela ikusten da, bai eta bizi-itxaropen txikiagoa ere populazio guztiarekin alderatuz gero. Talde oso gaztea da ere, bertako kideen ehuneko 40 inguruk 16 urte baino gutxiago baitu, Nafarroako populazio guztiaren ehuneko 15,6aren aurrean. Nolanahi ere, zantzu argiak daude adierazten dutenak demografia-jokabidearen jarraibide batzuk eraldatzeko prozesu batean daudela.